kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

GIDA INFORMATIBOA

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIETARA EGOKITUTAKO TAILERRA

# KONTSUMO ABENTURA

## 1. Helburuak


**Vitoria-Gasteiz**
Adriano VI, 20-1º. 01008
Telf: 945 01 66 00
Fax: 945 01 66 01
Email: formacion-araba@kontsumobide.eus

**Bilbao**
Nicolas Alcorta, 2. 48003
Telf: 94 403 22 20
Fax: 94 403 22 21
Email: formacion-bizkaia@kontsumobide.eus

**Donostia /San Sebastian**
Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015
Telf: 943 02 25 90
Fax:943 02 25 92
Email: formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus


Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

- Telefono mugikor baten erosketan eta erabileran eta Interneteko linea bat kontratatzerakoan eragina duten funtsezko aldagaien inguruko gogoeta egitea.
- Telefonia mugikorraren kontsumitzaile gisa gorde behar ditugun dokumentuak ezagutzea, ditugun eskubideak balioztatzeko.
- Online erosketetan ditugun eskubideak eta hartu beharreko neurriak jakitea,
- Tarifaren, zerbitzuen eta terminal mugikorraren aukeraketa eta erabilera arduratsua
- Ingurumen-inpaktua murrizteko aholkuak definitzea. Urrezko 3 Arauak eta zaharkitze programatua.

## 2. Edukiak

1. Honako hauek aztertzea eta ezagutzea:
   - 1.1. Telefonia mugikorreko publizitate-liburuxkak
   - 1.2. Kontratuak
   - 1.3. Faktura
2. Kontrataziorako, erabilera arduratsurako eta segurtasunerako gomendioak
3. Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak
4. Ingurumen-inpaktua
   - 4.1. Urrezko 3 Arauak. Murriztu, birziklatu eta berrerabili.
   - 4.2. Garbigunea
   - 4.3. Zaharkitze programatua

## 3. Jarduerak

Prestakuntza-ekintzak 3 fase ditu, ondoren adierazten den moduan:

KONTSUMOBIDERA ETORRI AURRETIK

KONTSUMOBIDEN

### KASUAREN AURKEZPENA

1.- 2 edo 3 lantalde sortzea

2.- Kasuaren aurkezpena

3.- Mezuaren edukia e-mailez bidaltzea

### AURRETIKO JARDUERA

Kasua Kontsumobiden ebazten lagunduko duten hainbat alderdi bilatzea etxean, kalean edo Kontsumobideko webgunean.

### AUKERATU ZURE ABENTURA

Asmamena eta jakintzak baliatuz, kasua ebaztera daramaten pistak asmatu behar dira.

Areto handian bateratze-lana egingo da, landutako edukiak biltzen dituen dekalogo bat emanez.

## 3.1. KASUAREN AURKEZPENA

1. 2 lantalde sortuko dira, ikasle kopuruaren arabera.
2. Kasua aurkeztuko da (kasu bera izango da talde guztientzat). Zer dio mezuak?
3. Mezu osoa e-mail bidez bidaliko da Kontsumobideko prestakuntza-zentrora, zentroak erantzuna zuzena ote den egiazta dezan.
4. Erantzuna egiaztatu ondoren, dagokion taldeari "***Aurretiko jardueren***" denbora-pasak bidaliko zaizkio e-mail bidez, Kontsumobidera bisita egin aurretik ebazteko. Talde bakoitzak bere kabuz erantzungo ditu planteatutako galderak. Erantzunak etxean, webgunera sartuz edo hiriko establezimenduetan informazioa bilatuz aurki daitezke.

## 3.2. AURRETIKO JARDUERA

- Talde bakoitzak bere kabuz egin behar du lana, eta talde bakoitzaren erantzunak desberdinak izan daitezke.
- Irakasleek denbora baldin badute, ikasleek egindako lana gainbegiratzen lagundu dezakete, baita Kontsumobidera bisita egin aurretik bateratze-lana egin ere.

## 3.3. AUKERATU ZURE ABENTURA

- Talde-lana sustatzen duen talde-jarduera bat da, eta aldi berean, asmamena, logika, jakintzak eta behaketa-gaitasuna lantzeko balio du.
- Talde bakoitzak pistak asmatu beharko ditu, eta guztira, 10 enigma ebatzi, azken pista aurkitu arte. Hori guztia denbora mugatuan.
- Talde bakoitzak bere kabuz egin behar du lana, eta talde bakoitzaren erantzunak desberdinak izan daitezke.
- Jokoaren denbora amaitutakoan, talde bakoitzak ozenki azalduko ditu hartutako erabakiak eta arazoak bideratzeko jarraitutako bideak, horrela, kontsumo-gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko ildoak eskainiz.

# 4. Gaitasunekiko lotura

## 4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorria duten taldeak

| | **Kasuaren aurkezpena** | **Aurretiko ariketa** | **Kontsumobiden** |
|---|---|---|---|
| ZEHARKAKOAK | | | |
| Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia | X | X | X |
| Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia | | X | X |
| Elkarbizitzarako konpetentzia | | X | X |
| Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia | | X | X |
| Izaten ikasteko konpetentzia | | | X |
| DIZIPLINARRAK | | | |
| Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia | X | X | X |
| Matematikarako konpetentzia | | | X |
| Zientziarako konpetentzia | | | |
| Teknologiarako konpetentzia | | X | X |
| Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia | | X | X |
| Arterako konpetentzia | | | |
| Konpetentzia motorra | | | |

## 4.2. Beste talde batzuk

| | Kasuaren aurkezpena | Aurretiko ariketa | Kontsumobiden |
|---|---|---|---|
| Ama-hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna | X | X | X |
| Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna | | | |
| Matematika-gaitasuna eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean | | | X |
| Gaitasun digitala | X | X | X |
| Ikasten ikasteko gaitasuna | X | X | X |
| Gaitasun soziala eta zibikoa | X | X | X |
| Ekimenaren zentzua eta enpresa-espiritua | | X | X |
| Kultura-arloko kontzientzia eta adierazpena | | | |

## 5. Baliabideak

- **Informazio gidak**
- Telefoniari eta interneti buruzko modulu tematikoa, Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuaren "Kontsumo Gaiei" buruzko atalekoa. http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbinfo03/eu/contenidos/informacion/kb_temas_telefonia_movil/eu_sll/index.shtml
- *Kontsumo* aldizkaria (Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuak argitaratua): http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbdocs04/eu/contenidos/informacion/kb_pubs_revistas/eu_kontsumo/index.shtml
    - 3. zk., telefoniari buruz
    - 12. zk., tarifikazio osagarriari buruz
    - 18. zk., Internet telefonia mugikorrean
- Telekomunikazioko Zerbitzuen Kontratazioari buruzko eskuliburua. Gobierno Vasco / Eusko Jaurlaritza. 2008 http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbdocs03/eu/contenidos/informacion/kb_pubs_guias/eu_guias/guias.html#aspSecto1
- Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuak argitaratutako liburuxkak http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbdocs02/eu/contenidos/informacion/kb_pubs_folletos/eu_folletos/index.shtml
    - *"Telefonia- eta Internet-zerbitzuak"* (2011)
    - *"Segurtasuna telefono mugikorrean"* (2013)

- **Material didaktikoak**
    - Kontsumo arduratsuko gida. Gobierno Vasco / Eusko Jaurlaritza. 2009. "Telefonia eta Internet" kapitulua. http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbdocs1/eu/contenidos/informacion/kb_pubs_mat_didac/eu_material/index.shtml#resp2009
    - *"Telekomunikazioak"* Multimendia Gida (Kontsumobideren Kontsumoko Prestakuntza Zentroetan eskuragarri)

- ## Web orrialdeak

  - **"TECNOADICCIONES". TEKNOLOGIA BERRIEKIKO ADIKZIO ARAZOENTZAKO LAGUNTZA ILDOA.**
    http://www.tecnoadicciones.com/01-beneficios-riesgos.php
  - **TELEKOMUNIKAZIOEN ERABILTZAILEAREN ARRETARAKO BULEGOA. SETSI.:**
    www.usuariasteleco.es/Derechos/TelefoníaMovil/AltasyBajas
  - **ZERBITZU MUGIKORREN ENPRESEN ELKARTEA**
    www.aesam.org
  - **INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN ZERBITZUEN LEGEA.**
    www.lssi.es
  - **INTERNAUTAREN SEGURTASUN-BULEGOA (OSI)**
    www.osi.es

- ## Helbide interesgarriak

  Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza zentroak

  - ARABA: Adriano VI. kalea, 20.zbk, 1.go solairua 01008 Vitoria-Gasteiz. Tfnoa: 945 01 66 00.
  - GIPUZKOA: Zarategi pasealekua, 82-84. zbk. bis. 20015 Donostia-San Sebastián. Tfnoa: 943 02 25 90.
  - BIZKAIA: Nicolás Alkorta kalea, 2. zbk. 48003 Bilbao. Tfnoa: 94 403 22 20.